

Goibekokale

ELGETAKO ALDIZKARIA

1995eko martxoko alea

F. IRIBAR.

Salbador 9, 1 ezk.

Maderas Gallastegui, s. a.

MENDI UZTIAKETA ETA SERRA MEKANIKOA
Azkarreta Auzoa 48230 Elorrio (Bizkaia) Telf. eta faxa: 6583061.

Goibekokale Elgetarentzat.

Aldizkari bat egitearen ideia ez da berria ez eta egiten den lehenengo aldia ere. Kasuak kasu, oraingoan, hazia ondo ereinda eta sustraiak hobeto botata daudelakoan, hazteko dauden arazo guztiak gainditzeko prest gaude.

Datozen hilabete guztietako lehen egunean bere loreak erakusteko ahaleginak egingo dira, nahiz eta lore hau zenbait txingor zaparrada jasotzera behartua egon. Ez dugu ordea ekaitzaldiaren beldurrik, beti ere eguzki printzen bat hainbat modutan helduko zaigu eta. Batzutan kolaboratzaile izena hartuko dute bero eta argi izpi indartsu hauek, bestetan banatzaile izena, baita kazetari edo antzerako beste zenbait agerraldi eta lagun, baina herri ekimenez sortu den lore honen eguzki printzarik beroena, herria izango da, arrera ateratzeko beharrezkoa izango den lagunartea.

Bidean nola ez, arantzak ere izango dira, larrosarik ederrenak ere hala baititu baina **Goibekokale**, oztopoak gainditu eta mundura zabaltzeko irrikitzen irtengo da. Ez gara ahazten beraz bizitzeko beharrezkoa den arnasa ematen digutenez, "abonoa" handik edo hemendik beharrezkoa baita.

Goibekokale, petaloz beteriko lorea, populazio sektore ezberdinen integratzaile izango da, petalo informatiboz, aisialdirako petaloz, herri euskaldun kontzientzia pizteko petaloz... baina petalorik garrantzitsuena, zu zeu izango zara, zati bakoitza atseginez irakurtzen jardungo duzun irakurlea. Aurrez eskerrikasko.

I.Aranzabal

Kataitik

Arratsaldeko azken orduak aurrera zihoazen, harrezkero ilun samar zegoen. Kataitik pasatzerakoan kriston kotxeak zebrabidea ez zidan errespetatu, eta soziedade eta Ostatuaren aurrean aparkatu zuen. Bere matrikulako numeroarekin ez naiz gogoratzen, baina esan dezaket Madrilgoa zela. Kotxe eder hartatik txoferra eta beste morroi bat irten ziren, eta so egin ondoren, atzeko atea zabaldu zuten. Gizon bat bajatu zen, beroki beltza eta luzea, burua soilik eta bizarra laburra. Kuriosidadeak jota, hurbiltzeko keinua egin nuen, eta morroiak bere jaka zabaltzean, barruan zer zeraman erakutsi zidan. Tontuarena egiten, norabidea aldatu nuen, atzera kataira joan, eta bertan gelditu nintzen. Nere harridurak bapatean gora jo zuen: Hori dok tipua! Telebisiñokua! Diru pillua harrapatu ta juanda dagoena! Zer ote jabik Elgetan?

Orduan beste aldera begiratu, eta handik, Alhondigaren paretik, azken eskilaretatik behera, Elgetako bi "Jauntxo Berriak" zetozen, duda barik, zuzen zuzen, nere ondotik pasa ziren (kasurik ere ez zidaten egin), eta Espainiako kalbu famatuarengana heldu ziren. Anda karajo! Bati kriston saludua (besarkada barne), gero bestea aurkeztu, eskua eman, eta hirurak barrura sartu ziren, morroiarekin batera. Txoferra bitartean kotxera itzuli zen, eta Berrandoko aldera aparkatzera joan zen. Nik barruan zer gertatu zen ez dakit, afaltzeko ordua baitzen, eta etxera joan nintzan.

Joxe.

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N. zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak bakarrik edo gaitzizena agertuko dira. Eskutitzen luzera ez da inoiz orrialde erdi makinaz, 15-18 lerro baino luzeagoa izango.




kutxa fundazioa
gipuzkoa donostia kutxaren gizarte ekintza.

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Goibekokale aldizkaria. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. Laguntza berezia: Elgetako Gazte Asanblada eta Ozkarbi elkarte. Koordinatzailea: Ana Gillegi. Erredakzio kontseilua: Iban Aranzabal, Gaizka Bolinaga, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. Erredaktoreak: Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Juan Ramon Irazabal. Maketazioa: Bittor Gallastegi. Euskera arduraduna: Iban Aranzabal. Argazkien errebelazioa: Txuri-Beltz argazkizale taldea. Komikia: Igor Arizmendiarieta. Horrorskopoa: Aitor Ubera. Ale honetako kolaboratzaileak: Alberto Agirreazaldegia, Alberto Telleria eta Jabier Aranzeta. Administrazioa: Susana eta Olaia Jimenez. Banaketa: Ikastola. Tirada: 400 ale. Inprimategia: GERTU koop. (Zubillaga Oñati) Copyright-a: Goibekokale.

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Mutil Autosufizientea



Izenburuko berba potolo hori irakurrita, hasi da honezkeru bat baino gehiago pentsatzen: "ekin jotzak Panaderixako zoro horrek bere xebebrexekin"; eta arrazoi osoa dauka, aldizkari honek ematen didan aukera aprobetxatuz, ekin diot nere xebebrekeriak idazteari eta horrela jarraitzeko asmoa daukat.

Baina natorren harira. Bakarrik bizitzen jarri nintzenez, gure herriko andra batek, katxondeo puntu batekin, zer moduz bizi ginen mutil autosufizienteok galdetu zidan eta oso ondo bizi ginela erantzun nion, eta, itxura batean, hor bukatu zen dena. Baina gero pentsatzen hasi nintzen: Zergatik egin dit galdera hori? Emea izanez gero neska autosufizientea izango nintzen? Titulu hori bakarrik arroi dagokigu?


Eta badakizue, txirrinboloa martxan jartzen denean nekez gelditu daiteke. Beraz, orduan sortutako pentsakizunak azalduko dizkizuet.

Egia da titulu hori, katxondeo puntu batez, gizonok bakarrik merezi dugula. Izan ere, hain gara inultitxoak gehienok, hain gauza gutxitarako prestatu gaituzte -geure aldetik ere ez dugu ahalegin haundiegirik egin-; bada hori, azkenerako gehienok emakumeren baten beharra daukagula. Ama izan daiteka, edo emaztea, edo arreba, edo laguna, berdin dio tituluak, ondo prestatutako emakume bat behar dugu inguruan, andra nagusiagoek esaten duten bezala, gizon ganorabakook behar den moduan gobernatzeko.

Eta horrela ez goaz inora. Gaur egun, zorionez, gero eta neska gutxiago daude inultitxoak gobernatzeko prest. Espabilatu egin beharko dugu, ganora piskat hartu, egin beharrekoak egiten ikasi -etxera dirua ekartzea ez da eginbeharreko bakarra-. Eta mutilok ezezik, gurasook ere espabilatu egin beharko duzue semeek aitzak baino ganora gehiago izan dezaten, ez dute eta ama bezalako gobernatzailek aurkituko.

Jabier Aranzeta

Irakurleon Txanda



Orain dela hilabete eskas eman zidaten aldizkari honen berri. Ez da oraingo asmoa. Aspalditxotik ari ziren Elgetako gazte hauek asmo honen atzetik eta azkenean egi bihurtu dute urte bete pasatxo izandako amets hura. Zorionak!

Zaila badirudi ere- eta horixe zaila dela-, errazena egin dutela esango nuke nik. Aldizkari hau kaleratzeko hainbat burukomin eta lan eduki behar izango zituzten gazte saiatu hauek, baina hori ez da ezer, hemendik aurrera, hilero-hilero egin behar dutena kontuan hartzen badugu.

Lehenengo aleak beti dauka halako xarma eta interes berezi bat, baina, ondorengoek irakurlearen hasierako interesa mantendu behar dute eta hauxe izaten da zailena kazetaritzan.


Idazlea ez da ezer irakurlerik gabe eta idazten duenak hori ondotxo daki. Ilusioz betetako kazetari gazte hauek ahalegin guztiak egingo dituzte irakurleak erakartzeko. Horretan ez dut dudarik. Baina Deia, DV, Egin, Egunkaria edo El Correo irakurtzen duzuenok eman behar duzue orain pausua.

Beraz, irakurleon txanda iritsi da orain. Badakit elgetarrok ez garela izan irakurle amorratuak. Ez da erraza ere irakurtzeko ohiturarik egon ez denean. Irakurtzea ariketa bat da eta, egunero ez bada ere, aldiro- aldiro egin behar da, kirola bezala, forman egoteko.

Eta irakurtzen ohitzeko bide egokia da hau. Herri informazioari esker jendea erraz ohitzen da ariketa honetara. Bertako gauzei eta gertakizunei buruzko idatziak errazago eta gustorago irakurtzen dira.

Zeuk daukazu orduan hitza, irakurle. Zu zara **Goibekokale** hilerokoa indartzeko giltza. Orain zeure txanda heldu da. Ez egin kalerik **Goibekokaleri**.

Alberto Agirreazaldegia



Badugu Dinamizatzaille Kulturala


Kultura batzordean horren eztabaidatua izan den dinamizatzaillea, lanean hasi da etortzeaz bat. German Meabebazterretxea izendatu dute kargu honetarako Elgetako udaletxean. 24 urteko elgoibartarra eta zuzenbidean lizentziatua (abokatua) da German. Horretaz gain, Elgoibarko Izarra kultura elkartean dabil lanean, bertso elkarteko partaidea ere bada eta jakin dugunez, bertotan aritua hainbat plazatan.

Bere zeregina, kulturarekin zerikusia duten gaiekin lotuta egongo da. Kultura taldeak koordinatu eta laguntza ematea izango da bere zeregina eta

honetaz gain Elgeta turismogune moduan bultzatzea ere izango da bere helburuetariko bat.

Egun gutxi daramazki bere lan berri honetan, baina dagoeneko proiektu asko ditu eskuartean: San Blaseko ermitaren konponketa, **G o i b e k o k a l e r e n d i r u l a g u n t z a**, dokumentuen errestaurazioa...

Germanek esan digunez, berak ez du inongo erabakirik hartuko. Tekniko bat izango denez, txostenak prestatu eta aztertzea izango du lan nagusia. Baina erabaki nagusiak, proiektuak aurrera eramatea, "politikoei hartuko dituzte".



G. Meabebazterretxea dinamizatzaillea lanean hasi berri.

UDALETXETIK

Biztanle beherakada nabaria Elgetan

Udalak biztanleen errolda, urtero bezela eguneratu du. 1995eko urtarrilaren lean, Elgetan, 984 pertsona zeuden zentsaturik; hauetako 501 gizonezkoak eta 483 emakumezkoak. Datu hauek begi bistan, eta urte batzuk atzera eginez, biztanle beherakada nabaria antzeman dezakegu. 1970ean, 1221 pertsona zeuden zentsuan; 1981ean, 1194 eta 1991ean, 1018. Euskal Herrian, eta baita Elgetan ere, jaiotze tasak behera egin du. Bizimodu ohituren aldaketa eta gaibehera ekonomikoa dira arrazoi nagusiak adituen esanetan.

1994ko kontuen likidazioa

Erroldaren eguneratzeaz gain, 1994ko aurrekontuen likidazioa egin zen martxoaren 15eko Gobernu Batzordean. Udaletxeak iaz izan zituen diru sarrerak 198 milioi pta izan ziren; diru irteerak berriz 197 milioi ptakoak. Kontutan izanik 1993tik 8 milioi gelditzen zirela eta udalak 44 milioi jaso zituela, bere zorrak ordaindu ditu (47milioi). Azken emaitza 5,5 milioitako superabita.

Udal bulegoak itxita larunbatetan

Udal langileen egutegia burutu denean, urte guztiko larunbatetan bulegoa itxita mantentzea erabaki da. Bestetik erainkuntza honetan ematen ari diren berriztatzeko obrak kontutan izanik, beheko solairuan ipiniko dituzte, gizarte laguntzailea eta auzitegiko gelak. Goian jarraituko dute idazkaritzak eta alkatetzak.

**ER
HARATEGIA**

**A
S
T
I**

San Roke 6
Telf: 768168.

ALDI DENDA
(GRUPO IFA)

IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK: 9-12.
Andra Mari Plaza 2. Telf: 76 80 98.

**M^a Karmen
Lenzeria**

Lenzeria eta
kosmetika gaiak.

Salbador zeharbidea.
Telf: 78 90 40



Gaszte Asanbladakoek, Ikastolari lekukoa ematen dioten ueña.

KORRIKA ELGETATIK

Urte batez gehiago izan dugu Korrika Elgetan barrena. Bost kilometro erosi zituzten, Gurasoen elkarteak, Gaszte Asanbladak, Udaletxeak, Tabernariak eta Herri Batasunak. Euskeraren alde AEK-k egiten duen saio honetan, elgetar askok parte hartu zuten.

Lehen txanda, Ikastolako haur talde batek hartu zuen eta aldapan gora, Albitxuraino heldu ziren. Bigarren erreleboak, "Izarreko bueltan", utzi eta Elgetarainoko hirugarren kilometroa burutu zuten, Gaszte Asanbladako lagunek. Bitartean Herriko plazan, hortxe zeuden zain azken txanpa burutzeko, herritarrak eta berriz ere indarrez gainezka Ikastolako haurrak. Hauxek eraman zuten lekukoa ia mugaraino eta elorriotarren esku utzi zuten azkenik HBkoek.

Jai arratsaldetik

Zortzirak eta laurdenetan korrika maldan gora hasi bazen ere, Elgetako kaletan barrena jai

giroa nabaria zen. Zazpiak eta laurden inguruan, goikokaletik hankapaluak eta Elgetako trikitilari eskolakoak giroa alaitzen zuen bitartean, jendea plazara hurbilduz zihoan. Hau gutxi balitz plazako mahai batzutan txorixo eta ogi puskak eskeini ziren.

Txandalak, fraka motzak, zapatilak, berotze ariketak eta azken uneko gomendioekin, giroa pil-pilean jarri zen plaza inguru honetan. Musikak eta zuzirik postu bakoitza arretan jartzen zuen bitartean.

"Badator, badator"

Aldatzean gora ekin zion Jokinek Jalotza ondoan. Bergarar batzuk ere jarraitu zuten, gora iristeko asmoz eta lortu zuten. Elgeta ingurura heltzean animoak eta txaloen artean Korrika Elgetatik pasa zen.

Eguraldi ona eta jai giroa; martxoak 23a, egun berezia bilakatu zen Elgetarentzat.

Bertso saioa Elgetan

Elgetako euskara batzordeak antolatutako bertso saioa bestetan ez bezelakoa izan zen. Aurtengo dekoratua liburutegia eta bertan lau "ilustratu": I. Sarasua, A.M. Peñagarikano, I. Ibarra eta I. Elorza I. Aranzabal gajjartzailearen esanetara. Martxoaren 3ko elurte gauak jente gehiago ez joatea eragin zuen, baina bertsolariak hotzari aurrea hartuz bertsozaleak nola animatu behar ziren asmatu zuten. Horrela erakutsi zuten behintzat Elgetarrak bertsolarietara eskeinitako txalo zaparradak.

Jai batzordearen oharra

Adi elgetarrak: Jaietako partaide izateaz gain bertako ekintza batzutan parte hartu nahi baduzu, zator hilaren 11an arratsaldeko 6:30etan egingo den bilerara. Berdin dio zahar edo gazte, emakume edo gizon izan. Animatu zaitzete kaskajo kuadrilak!

Emakumeen eguna

Martxoaren 8an emakumeen eguna zela eta Elgetako emakumeek ere zeresana izan zuten, horrela zioen behintzat Gaszte Asanbladakoek atera zuten pankartak. Andrazkoek dituzten eskubideak aldarrikatzeaz gain, zapalkuntza, sexismo eta diskriminazioaren aurka zeudela erakutsi zuten. Ez zen ordea erreibindikazio hutsean gelditu, merienda eder batez eman baitzioten amaiera egunari, urrengo urterako erreibindikatzeko motiboak gutxituko direlaren esperantzaz.

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Telf: 860156

VIVO JANARI DENDA


M^a JESUS
ARRAZOLA

Telf: 76 81 31

IBAIBARRIAGA GARRAIOAK

E.Ibaibarriaga
Telf: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

Zer pentzitzen jatzu GOIBEKOKALE aldizkari barrixa kalera etaratzia ?



Rafael Loidi
Jubilatua
(71 urte)

Ondo pentzitzen dot hori eittia; oso ondo pentzitzen jata herriko asuntuak batzia eta zabaltzia.



Pilar Bolinaga
Etxekoandria
(52 urte)

Oso ondo. Ze esan bihot ba nik. Herrirako importantia da: Askotan ez gara enteratzen zer barri daren eta.




Eguzkine Gallastegi
Dendarixa(35 urte)

Ba oso ondo pentzitzen jata, eztakitt, pentzitzen dot interesantia dala jentia bere iritxixa emoteko.



Samuel Gorrotxategi
Tabernarixa(25 urte)

Ondo pentzitzen jata, zeozer falta zan herrixan. Nik uste dot aldizkarixa ondo egongo dala notiziak ikusteko. Aber.




Iñaki Urgoitia
Medikua (43 urte)

Nere iritxixa aldekoa da, ideia ona iruditzen zait, beiharrezkoa. Ondo etorriko jakola herrixari holako aldizkarixa edo iritxia zabaltzeko lekua.



Jone Ojanguren
Ikaslia
(16 urte)

Ba ondo pentzitzen jata, zegaitxik, uste dot, herrixak holako zerbait biha zabala.



**METALEN
SALEROSKETA**

ANDONI BOLINAGA


Salbador 7
Telf-Faxa: 768064 Elgeta

PANADEROKUA TABERNA

CONCHI IDIGORAS
LARUNBATA ETA IGANDETAN
BERTAKO BABARRUNAK
SAIHESKIA ERRETA

ELGETA

TELF. 76 82 73



Jose Ramon Aranzabal

(Aranzabal Txikixa)
Zabalako bihargina

Zein dok hire jaiolekua? Aranzabal basarrixa.
Zenbat urte? Berrogeita sei.
Zein dok hire zapatillen numerua? 41a.
Badaukak biziorik? Bai, danak, danetik pixkat.
Atxurra ala goldia? Bixak.
Eguna ala gaba? Gabia.
Zek hasarratzen hau gehixen? Lanak.
Amoria, kartaz ala telefonotik? Bapez, ez jaok eta.
Musika estilorik gustokuena? Trikitixa.
Erromerixia ala diskotekia? Erromerixia hobeto.
Zezen zalia haiz? Praktikatzeko ez baina ikusteko bai.
Badaukak konfiantzaik politikan? Ez, gero eta gutxiago.
Loterixia tokatu ezkeru, zer eingo heuke? Biharra laga.
Hire gorputzeko zatirik polittena? Txortia. Zein izengo dok ba.
Eta bestienian? Dana; jeneralian dana.
Zer pentzau jatak alkarrizketia? Ona; bapatekua.

ELGETA: Kultur etxean:

Apirilak 21: Arratsaldeko zazprietan. Mendiari buruz diapositibak eta hitzaldia, Ramon Loitiren eskutik. E.G.A-k antolatuturik.

BERGARAN:

Apirilak 8: Txorimalo lehiaketa. Hiru maila desberdinetan banatuko da, beti ere adinaren arauera. Erramu larunbat horretan, aurkezten diren txorimalo guztiekin erakusketa bat egingo da. Informazio gehiago jasotzeko, aintzinako ohitura berri honi buruz deitu Jardun Elkartera.

ARRASATE:

Apirilak 20-21-22: Bailarako euskera elkarteek antolatuturik, Hiru Haundiak egiteko asmoa dago. Izen ematea Apirilaren 9a baino lehen izan behar da, A.E.Dn edo Jardun Elkartean. Prezioa, 3.500 pta eta honen barnean: Autobusa, bi gosari, bi afari eta bazkariak (lehen egunekoak ezezik). Antolatzaileek, esan digutenez, "ez da goi mailakoentzat antolatua izan, denontzako da. Jende asko espero dugu". Gure aldetik esan plan ezin hobea dela.

ELORRIO: Arriola kultur aretoan:

Apirilak 8: Antzerkia 22:00etan: "Hombres". T de Teatre taldearekin (Catalunya).

Apirilak 21: Antzerkia 22:30etan: "Molly Blom". Agerre teatro taldearekin.

Apirilak 22: Antzerkia 20etan "Crònicas de motel"(Bizkaian estreinaldia). Agerre teatro taldearekin.

EIBAR: Apirilak 24-Ekainak 12, Bertso Ikastaroa, Eta Kitto euskera elkarteak antolatua. Telf: 100918.

Aries: Horrelako martxan Suasenagei baino bizeps handiagoak atera behar zaizkizu.

Leo: Ez ezak/n hainbeste ahoa zabaldu bestela zoologikora eramango zaituzte.

Sagitarius: Erosketako poltsa horren betea eramanez gero bihur-bihur eginda geratuko zara.

Taurus: Genero eta numero hau eta plazako auklarian orduak sartzen?

Virgo: Maratoian baino kilometro gehiago egiten dituzu kalean gora eta bera. Kontuz zuritoekin!

Capricornius: Kendu ezazu disfrazta, karnabalak pasatu dira eta.

Geminis: Duzuen belarririk belarrirako barrea aste honetan zerbait ondo irten den seinalea da.

Libra: Zu bezalako giza semea eta oraindik libre?

Acuarius: Zuen portaera eguraldia baino gehiago aldatzen da. Kontuz datorren ilargi betearekin.

Cancer: Inora joan aurretik gorputza berotu bestela astelehenean kontsultan jende gehiago egongo da.

Escorpio: Ipurdiko katarroa duzula? Goizetan zelaia umelak egoten dira...

Piscis: Oheari atsedena eman eta lanbada dantzatu ona da eta.

ANA LIBURUDENDA

LIBURUAK
JOSTAILUAK
ALDIZKARIAK
ESKOLARAKO TRESNAK

Salbador kalea 1, Telf: 76 80 78 Elgeta

HAIZEA TABERNA

Salbador 5

Telf: 768256

ELGETA

Aitor Elkoro : "Elgetako lau t'erdiko txapelketa, afizionatu mailako garrantzitsuena da"

Aitor Elkoro, "Asegarce" enpresako pilotari elgetar profesionalarekin egon gara, bere gaur egungo egoera eta beste hainbat kuriositate jakiteko. Bigarren mailako banakako txapelketan porrot egin ondoren, bere sasoi hoberenera bueltatzea du helburu. Uruburu baserrian jaiotako 28 urteko gazte honek, asti librea duenean lagunekin "juergatxo" bat egitea eta mendira joatea du gustoko. Frontoi berdea edo zuriaren arteko tirabira moda kontua dela dio.

- Lehenengo mailako banakako txapelketan ondo aritu zinen, baina, zer gertatu da bigarren mailako banakako txapelketan?

Alde batetik, bigarren mailako txapelketan oso presionatuta sentitu nintzen, lehenengo mailako pelotaria izanik jendeak gehiago espero baitzuen nigandik eta bestalde banakako txapelketa bukatu ondoren ez dut behar adina denbora izan txapelketa prestatzeko.


- Binakako txapelketan nolako materiala izan duzue?

Arazoa betikoa izan da alde batetik enpresen interesak daude eta bestetik pelotak egun batetik bestera aldatu egiten dira. Nik proposatuko nuke materialaren hautaketa partiduko egunean egitea.

- Zer espero duzu aurtengo zure denboralditik?

Banakako txapelketan porrot egin ondoren, niretzat garrantzitsuena morala berreskuratzea da, udako torneonetan maila ona eman eta

"Orain, garrantzitsuena, morala berreskuratzea da. Udako torneonetan maila ona eman eta hurrengo urteko banakako txapelketa prestatzen hasi".



hurrengo urteko binakako txapelketa prestatzen hastea.

- Nola sartu zinen pelota munduan?

Ez zegoen beste kiroletan aritzeko aukerarik eta denok frontoira joaten ginen, horrela

p i x k a n a k a - pixkanaka afizioa hartzen joan nintzen orain nagoen tokira iritsi arte.

- Izan al duzu idolorik?

Bai. Retegi. Nire garaiko jende askorentzat bezala.

- Zer iruditzen zaizu Retegiren renuntzia? Nor da zure ustetan faborito nagusia?

Azken egun hauetan Retegik bere damua erakutsi du prentsan. Nire ustez Retegi txapelketara ez aurkeztearen

arrazoia iazko renuntzia izan da, orain aurkeztuz gero kritika latzak jasoko zituelako. Aurkeztuko balitz izugarritzko lana egingo luke. Bigarren galderari dagokionez, Arretxe. Banakako txapelketarako egina baitago.

- Duela gutxi Maizi omenaldia egin zioten. Zer iruditu zitzaizun?

Maizek guztiz merezia dauka egin zioten omenaldia. Gizon aparta izateaz gain pelotari haundia izan delako.

-Ortizek Mungian izan zuen jokaera nola definituko zenuke?

Oso gaizki deritzot, baina, Ortizengandik etorrira ez ninduen gehiagi harritu. Nire ustez ipini dioten zigorra ez da nahikoa izan.

Bigarren mailako txapelketan oso presionatuta sentitu nintzen. Lehen mailako pilotaria izanik jendeak gehiago espero baitzuen.

MOTZIAN

- Zeintzuk dira zure bizioak?

Noizean behin "juergatxoren" bat egitea.

Bidaia tzea ere bai, pelotak usten didanean.

- Mendia ala hondartza?

Mendia. Dударik gabe.

- Elgeta ala Antzuola?

Elgeta.

- Sagardotegia ala jatetxe dotore bat?

Jatetxe dotorea.

- Pelotaririk jatorrena?

Ezagunenen artean Errandanea eta Beloki.

Baina badaude beste batzuk: Zabala...

- Pelotaririk errespetagarriena?

Retegi, dударik gabe.

- Amodio platonikoan sinisten al duzu?

Platoniko platonikoan, ez.

- Pelotaria ez bazina zer gustatuko litzaiuzuke izatea?

Norbera gustora badago bere bizimoduarekin eta errerealizatuta sentitzen bada, ez du beste zerba it planteiatu beharrik.

- Bizitzak zer ez dizu eman oraindik?

Momentu honetan gustora nago.

- Maiteminduta al zaude?

Bai. BAI.

- Neskatan egiteko gomendio bat?

Norbera irekia izatea eta jatorra.

- Joango al zinake "lo que necesitas es amor" programara?

Ez, pentsatu ere ez! Lotsagarria iruditzen zait.

- Frontoia berdea ala zuria?

Biak. Moda kontua da. Baina gaur egun telebistak agintzen du.

- Noiz arte pelotan?

Bueno, ahal den arte.

beste zenbaitzuk. Nik diodan bezala kantitatetik irteten da kalitatea.

- Non dago afiziorik gehien?

Afiziorik sutsuena Riojakoa da, Bergaran eta Eibarren aldiz nahiz eta afizio haundia egon gehiengo apustuak egitera joaten da. Orokorrean izar bat ez dagoen tokian ez da afiziorik sortzen.

- Zergaitik dira nagusi Nafarrak?

Bai aizkolaritzan, harrijasotzen, pelotan eta beste hainbat kiroletan Nafarrak dira nagusi. Honen arrazoia, nire ustez, beraiek duten "kasta" berezia da.

- Euskadiko selekziorik bai?

Lehenik eta behin arazo politiko baten aurrean aurkitzen garena iruditzen zait. Arazo horri konponbidea aurkituz gero begi honez ikusiko nuke Euskadiren izenean aritzea.

- Asegarce eta enpresas unidasen arteko gorabere it buruz zer duzu esateko?

Niri ondo iruditzen zait enpresen arteko pikea egotea, hauek pelotarientzat onuragarriak direlako. Baina, gaur egungo arazoa ez dago enpresen artean baizik eta *enpresas unidasen* barnean, bost sozioetatik hiruk alde egin dute eta gelditu diren be it bat gehitu zaie *eskutalde* enpresa sortuz.



"Materiala, partidu egunean aukeratzearen alde nago".

- Elgetako ETB kantxa txapelketa zer iruditzen zaizu? Favoritorik?

Elgetako ETB kantxa afizionatu mailan dagoen txapelketarik garrantzitsuena dela uste dut. Nik jokatu dudan alditan oso gustora aurkitu izan naiz. Gainera aparteko giroa egoten da. Favorito nagusitzat taldetxo bat nabarmenduko nuke bertan Berraondo, Unai Urretabizkaia eta Barberito sartuko nituzke.

- Ba al du Elgetak pelotan etorkizunik?

Gaur egun hortxe daude Ubera anaiak, Eñaut Aranzeta eta



I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A

M^a ESTER

Telf: 76 81 67

P
A
T
X
I

T
A
B
E
R
N
A

Salvador 3
Telf: 768093

Fernando
Ojanguren

M^a Jesus
Mujika

ZABORRA

Zuhaitz batek, adibidez, 10 pertsonen arnasa hartzeko behar duten oxigenoa sortzen du, automobil bakar batek ordubetea 200 zuhaitzek egunean sortzen duten oxigenoa kutsatzen duelarik. Adibide honekin esatea nahi duguna hau da: natura gehiago zaindu behar dugula, honi kalte handia egiten diogulako, eta guk, hau da, elgetarrok, nahiz eta Elgeta ez egon



Elgetan badugu aukera papalak eta kristalak birziklatzeko.

oso kutsatua, gehiago zaindu beharko genuke.

Elgetan zuzendu dezakegun beste gauza bathaude: neska-mutilek, larunbat eta igandetan batez ere, kiosko ondoan eta herri osoan zehar botatzen dituzten goxokien paperak; lurrera botabeharrean, zakarrontzietara bota behar dira. Honela, herria garbi mantenduko litzateke eta kutsadura murriztu egingo zen.

Gipuzkoarrok egunero 700.000 kilo zabor sortzen ditugu; eta zabor horietako zati bat paperez eta kristalez

osatua dago. Datu hauek jakinda, ondorio hauek atera ditzakegu:

Papera eta kristalen berziklaketak ez direla kontutan hartzen, hau da, papera eta kristala birziklatu beharrean, baliabide naturalak agortzen ari garela. Horrela jarraituz gero, baliabide natural hauek agortu egingo diren puntu batera iritsiko gara.

Elgetan, denok dakigu, (eta norbaitek ez badaki),

Ozkarbiren atzean papera eta kristala birziklatzeko ontziak daude; eta hona gure etxeetako paper eta kristalak bota ezkeron, natura kutsadura murriztu egingo zen. Erabilitako paperaren bidez, berria egiteko energia gutxiago behar da, %30etik-55era gutxiago. Gainera, ur kontsumoan %61 aurrezten da, 13 zuhaitz uzten dira bota gabe paper tona

bakoitzeko eta atmosferaren kutsadura %73 murriztuko da.

Beraz, denok dakigu zer egin: **BIRZIKLATU** eta **HERRIA ZAINDU !!**

Saioa eta Itxaso.

8. maila



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.

Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

Publizitatea egin nahi baduzu Goibekokale aldizkarian, telefono honetara dei egin dezakezu goizetan: 76 81 93.



Urtero bezela Zuhaitz eguna ospatu zen Elgetan.

Zuhaitz eguna

Martxoaren 25ean eta Angiozarko Elizamendiko jaiarekin batera, urtero bezala haur, gazte eta gurasoek, Asentzio aldera jo zuten, 15 zuhaitz berri landatzera.

Pasa den urtean 8 lagun baino ez ziren bildu, eta zuhaitzak eta otartekoak soberan gelditu ziren. Aurten ordea, 30en bat lagun abiatu ziren Asentzioko zelaietara. 15 zuhaitzak, eskaz gelditu ziren hainbeste aitzurrentzat baina otartekoekin arazorik ez zen izan, "erdebitu eta kitto".

Pagoak, haritzak eta gaztainondoak landatu zituzten zirimiripean. Batzuk begira eta beste batzuk, zuhaitzak behar bezala landatzen erakusten saiatu ziren. Laster, ahalegin guztien ondorioz, han aurkitu ditzaitezue tente-tente, itzala emateko gai izango direla ziurtatu diguten arbolak.

Txistekak:

- Nola duzu izena?
 - Batzuk Teo deitzen naute eta beste batzuk Doro.
 - Ah! Orduan Teodoro izango duzu izena.
 - Ez, Doroteo.
-
- Lehenengo zigarroa erre zenuenean ez al zenuen buruko minik eduki?
 - Burukoa bakarrik ez, gorputz guztikoa.
 - Gorputz guztikoa?
 - Bai, zuk ere edukiko zenuen, aitak niri eman zidan jipoia emango balizu.

Iban 8. maila



BERTSOTAN

ELGETAN SORTU DUTE
ALDIZKARI ONA
HORRETARAKO BEHAR
LAGUNTZA DENONA
ALDE BATETIK DIRU
BESTETIK LIMOSNA
BERTAN ATERAKO DA
ALBISTE ONENA.

Olatz 8.maila



"HAU DA ITXURA LEHIAKETA"

ARGAZKI HONETAN AGERTZEN DEN BAINO POLITAGOA DA HILEBETE HONETAKO PERTSONAIA. IZENA ETA ZEREGINA ASMATU BEHARKO DIRA ETA ERANTZUNA KARTAZ BIDALI LEHEN BAIT LEHEN. SOBREAN GOIBEKOKALE IZENA IPINTZEA NAHIKOA IZANGO DA GUREKIN HARREMENETAN JARTZEKO.

ANIMO ETA SORTE ON DENORI!

ASMATZAILEEN ARTEAN E.G.A.K EMANIKO KAMISETA BAT ZOKKETATUKO DA

Futbito: Elgetako gazteak galdu.

Elgeta eta Elorrioko gazteak, martxoaren 26an, futbito partido bat jokatzeko bildu ziren Elgetako polikiroldegian.

Lehen zatia nahiko berdindua izan zen (1-1). Bigarren zatian, Elorrioko gazteak erraz nagusitu ziren eta partidu amaiera 1 eta 7koa izan zen.

Txirrindularitza Elgetan.

Lehenik eta behin esan apirilak 3 eta 7 artean, ospatuko den Euskal Herriko itzulia Elgetatik igaroko dela. Laugarren etapan izango da, Trapagaranen hasi eta Lekunberrin bukatuko dena. Tropela, Elorriotik etorriko da eta Bergara bidean abiatuko da. Guzti hau 13:00k inguruan.

Baina Euskal Herriko itzulia igaro baino lehen, apirilak 2an afizionatu mailako "Memorial Valenciaga" froga garrantzitsua igaroko da. Hori 12:15ak aldera izango da eta Euskal Herriko itzulia ez bezala, Uberatik Elorriora joango da.

Ez dugu ahaztu behar afizionatu mailan, Elgetako txirrindulari bat dugula, "Cafès Baquè" taldean ari den Oskar Askasibar. Oskar, bigarren mailako afizionatua da (bigarren urtean). Aurten, iaz egin zuen denboraldi ona hobetu nahi du, postu onak eta garaipenen bat edo beste lortuz.

Futbito txapelketa aurrera doa

Futbito txapelketa martxan dago urtero bezala. Aurten ere faborito nagusiak, Patxi tabernakoen (nagusiak) faltan kanpoko taldeak, Txapelak zerbait egiteko aukera baldin badu ere.



Aurten go txapelketan, sekula eman diren istilu larrienak eman dira. Heskeiak "A" taldeko Asier eta Urien taldeko "Kani" ia borrokan hasi ziren partiduko gora behera baten ondorioz. Ondorioz, urrengo ostegunean, bilera batean elkartu ziren talde bakoitzeko ordezkariak arazo honi buruz hitzegiteko. Jokalari bakoitza bi partiduz zigortzea erabaki zen.

Azken jardunaldiko lehen partiduan "derby" bat jokatu zen, Patxi eta Zeletaren artean. Partidu oso borrokatua izan zen eta nahiz

Zeletak ezin izan zuen Patxi taberna gainditu "derby"an.

eta Patxi taberna Alkortaren gol batez aurreratu, bigarren zatian Zeletak berdinketa lortu zuen Daviden bitartez. Bigarren partiduan beste "derby" bat jokatu zen Txapela eta Hartik Hortiken artean, lehenengoak 15 eta 5 nagusitu ziren. Azkenengo partiduan Urien eta Heskeiak "B" izan ziren partehartzaileak, denon harridurarako bigarrenek 6 eta 2 irabazi zuten. Esan beharra dago, Heskeiak "B" futbol ikusgarria egiten ari dela.

Sailkapenak

Nagusiak:

Urien	11puntu
Heskeiak A	11puntu
Heskeiak B	11puntu
Txapela	9puntu
Patxi T.	5puntu
H.H.H.	4puntu
Zeleta	3puntu

Txikiak eta neskak:

Ana Liburudenda	8puntu
Joixon bertan	2puntu
Gaztiak	2puntu

BILTEGI DENDA

Kirol, Burdin, Menajea.
Zugandik gertu, behar duzun beste.

SALBADOR 24
Telf: 76 82 06

BOLATOKI TABERNA-JATETXEA

Berezitasuna: Buztana.
Pintxo goxoak, otartekoak.
Elorrio bide z/g Elgeta. Telf: 943/768284.



M. Asun Agirre

Salbador 26. Telf: 768190

4 t' erdi barruko txapelketa hasi da.

Elgetako 4 t' erdi barruko "ETB Kantxa" txapelketa hasi zaigu dagoeneko. Torneo honetako antolatzaileen lan bikainari esker, afizionatu mailan dauden pilotaririk onenak izango dira. Torneo honek gainera Euskal Herriko zaletu guztien artean ikusmin handia sortarazi du. Hemen izango dira, besteak beste, Berraondo, Olaizola, Goñi, Barberito...

Bestelde ez dezagun ahaztu Elgetako pilotariak ere baditugula txapelketa honetan, Ubera I, Aranzeta, Peñalber, Barrigón eta Ubera II.ena. Azken honek, 17 urteko beherakoen artean jokatuko du.

Aranzeta, Peñalber eta Barrigonek dagoeneko jokatu dute beraien lehen kanporaketa, zorte ezberdinarekin. Lehenak, erraz irabazi zion Marmolejo Eskoriatzarrari (22-12).

Beste biek, aldiz, ezin izan zituzten beraien kanporaketak gainditu. Adituen ustez, Peñalberrek, bere erruz galdu zuen partidua, egin behar ez diren erruak egin baitzituen. Azkenean 13 tantotan geratu zen Larralde durangarraren aurrean.

Barrigonek, Barcenaren (Getxo) aurka galdu zuen 22-17. Beronek eskuetako arazoak zituenez, ez zuen bestetan bezalako lana egin. Nahiz eta arazoak eduki, partidu erdialderarte ondo eutsi zion aurkakoari, baina 13na berdindu ondoren Getxokoa nagusi izan zen partidu amaierararte.

SASKIBALOA.



Oraingoan ere ez.

Bigarren urtez jarraian finalera heldu ondoren, "Elgetakoak" ezin izan zuten Eibarko txapelketa irabazi. Finala hasi aurretik faborito garbiak ziren txapelketa irabazteko. Betiko Bittor, Larra, Luisi... Bergarako beste hiru elkartu zaizkie: Iñaki, Angel Mari eta Asier. Baina beste argudio batzuk ere bazeuden, hala nola sailkapen partiduan erraz irabazi baitzieten.

Hasiera Txarra: partidua hasi bezain laister, Gaberdiko Pubekoak 6-0 aurreratu ziren. Pixkanaka-pixkanaka "Elgetakoak" hurbildu egin ziren(8-8), baina minutu askotan zehar, nahiz eta oso parekatua izan lehia, ez zuten aurretik jartzea lortu. Angel Mariren suspertzea lehenengo zatiaren amaierarekin batera etorri zen eta bere hirukoitzei esker, "Elgetakoak" 4 puntuko abantaila joan ziren(16-20).

Bigarren zatian, dena erabakita utziko zutela uste genuenean, urte guztian lan arazoengaitik etab. jokatze

aukera izan ez dutenak jokatu zuten eta berehala nabaritu zitzairen entrenamentu falta. Aurkakoak oso ongi aprobetxatu zuten egoera hau eta bigarren zatiaren erdialderako 9 puntuko abantaila lortu zuten. Momentu hortatik aurrera markagailuko gora-beherak mantendu egin ziren 38. minuturarte. Orduan, 11puntu behera zihoazela, azken ahalegin bat egin zuten, baina ez zen posible izan partidua irabaztea. Bukaeran 46-45 adierazi zuen markagailuak elgetarren kalterako.

Elgetako beste taldeak, aurreko urteko txapeldunak "Estampaciones Elgeta" k aurten oso denboraldi kaskarra burutu du, nahiz eta aste askotan zehar galdu gabe iraun, azkenean 5. postuan bukatu dute. Talde horretako jokalaria batek adierazi digunez, denboraldi eskaz horren arrazoi nagusia jokalaria batzuen "pasotismoa" izan da.

Aupa mutilak hurrengoan txapeldun!

ZELETA JATETXEA

IÑAKI GOROSTIZA

Eguneroko eta kartako menua
San Roke 2 .Telf: 768151



IRAMA

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK
24 ORDUKO ZERBITZUA MENSATEL: 900282828
Harpidedun 247262 Telf: 789057- 768025 Salvador 3

EIN, EIN, EIN BIHA DALA!

-Hi, entzun don, Intxortako puntuari 10 metro kendu jotzan haixiak.

-Hi, horri beruanak kendu bihako jotzazau.

-Si, ya sabes el viento que pega en Intxortako punta. (Pankorbotik behera ez dago kristaurik hau aittuko dabenik. Elgetan jotzen daben haixiak boseadoria ete dan edo...) .

Zorionerako edo zoritxarrerako hau da Elgetan bizi dan errealidadia euskeraren gaiñian. Txarragua esango nuke nik: hika, 20-22 urtetik behera, ixa iñok be ez dau berba eitten (andrazkuen hiketia entzuteko 40-45 urteko andregana jo ein bihako giñuke); hamaikatxo esakera eder galdu dittugu, edo behintzat gero eta gutxiago entzuten dira *-beruana kendu, zirkin eiñ eta, gauzia dakana ei da!, hire fraketan sartu hari...*- Halata be, hizkuntzetan aberastasuna eta freskotasuna galtziaren fenomenua leku guztietan, hizkuntza "modernuetan" behintzat, pasatzen dana da.

Gaitz erdi sikera, zuka eta pobretxuago eingo bagiñu danok, edo behintzat dakigun danok. Makiña bat bidar irakurri dogu taberna baztarretan Bitoriano Gandiagak esaten ebana: *Hizkuntza bat ez da galtzen, ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik.* Arrazoia galanta!

Gaitz erdi diñot, Elgetan zenbait sektore eta edade bateko jentangan hizkuntz aldaketia somatzen dalako, euskeratik erderarako aldaketia, edo behintzat joeria, joera haundixa gaiñera, eta gehixenentzat kaleko hartu-emonian: koadrilan, tabernetan, dendetan... Ez neuke pentzau gura, eta ez dot uste hala danik, joera edo hizkuntz aldaketa hau etxeko mahaixetara aillegau danik.

Euskeria erderia baiño gutxiago ete da? Oiñ arte kalian, dendetan, lagun artian komunikatzeko balio izan dabenak, hemendik aurrera ez ete dau balio?

Badakit bakotzak bere hartu-emonetarako berak gura daben hizkuntzia aukeratzen dabela, eta hori ezin jako iñori ukatu. Baina jakin daigun danok, euskeraren jokua edo apostua ez dala bakarrik umiak ikastolara edo "D" eredura bialtzia; euskeraren aldeko errifak erostia; ETB-1 ikustia; urtian behin "Nafarroa Oinez", "Kilometroak" edo "Araba Euskaraz" era joatia... Argi eta garbi euki daigun zelako Elgeta gura dugun, askok ezagutu ez arren, hemendik 15, 20, 30 urtera, euskalduna ala erdalduna. Ez pentzau salto haundirik dagoenik aukera batetik bestera, eta euskalduna gura izan ezkerro, oinarrixak jartzeko sasoia aillegau jaku.

Elgetan, halata be, euskeraren egoeria osasuntzua da, oiñ dala 25-30 urtetakua baiño hobia esango neuke. Nok pentzau oiñ dala 25-30 urte udaletxera joan eta papelak euskeraz eitteko aukerarik izango giñuanik. Nok pentzau umiak euskaraz eskolaratuko zienik; telebisiñua euskeraz ikusiko giñuanik. Jende alfabetatua be ugarritu ein da, ez perretxikuak letxe baina bai ugarritu. Baiña euskeraren erabilia Elgetako kalietan urritu ein da, sektore batzuetan behintzat, eta hau bai dala karga haundiko burdixa. Iri dezentia eta puntako eitten dabena bihako da oneri bueltia emoteko!

Seguru nago GOIBEKOKALEKO lagunak karretero apartak izango direla, geratzen jakun bide luzian.

A. Telleria

OSTATU
JATEXER

Gudarien Bide
Telf: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.
eta kartara ere bai

GORROTXATEGI
HARATEGIA

Andra Mari Plazan zure etxetik gertu.
Telf: 76 81 72.



Argazkia: Joakin Gastezi

1967. urteko argazki hau, orain eskola berria egiten ari diren lekuan aterata dago, Maalan. Ikastola sortu zeneko lehenengo ikasle talde dugu goiko hau.

Erretratu honek baditu urte batzuk, baina ezagutzen al ditugu bertan agertzen direnak?

Ezagutu ditugun izenak hor doaz eta norbaitek bere burua "ezezaguntzat" jo dugula ikusten badu, ez dezala txarto hartu eta bakoitzak bete dezala garai hartako bere eskolalagunen zerrenda.

Andereñoa: Margarita, Lupe etorri aurrekoa. **Goian ezkerretik hasita**, Manolito, ezezaguna (atzekaldekoa), F. Jabier Aranzeta, Juan Mari Aranzeta, Ikatzarreko Aitor eta Mikel, Ion Alberdi, Patxi Larrañaga, Amaia Aranzeta, Arrotako Iñaki, M^a Karmen Maiztegi, Juan Mari Aranzabal, Jose Luis Aranzeta, Jose Ignacio Mihi eta Juan Jesus Unzetabarrenetxea. **Bigarren ilaran**, Lorea Elkoro, M^a Iciar, Jasone Basauri, Eguzkiñe Gallastegi, Arantxa Lamarain, Eli Arrizabalaga, M^a Karmen Igartua, Sara Sarasua, Josune Loidi, Itziar Arizmendiarieta eta Soraia. **Beherego ilaran jarrita**, Garbiñe Irazabal, Edurne Arrazola, Arantxa Markiegi, Ana Mari Mihi, M^a Jesus Aranzabal, Beatriz Zabalondo, Miren Iturrikastillo eta M^a Jesus Angoitia.

Etxean dituzuen erretratu zaharrak hemen agertzea nahi izanez gero, bidali **GOIBEKOKAL**era zuen izena eta argazkikoenak adieraziz.

Estampaciones

Elgeta


Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatu.

Z O R I O N A K


ELGETAKO HERRITARREI ALDIZKARI HAU ZUEN
ESKUETAN DAGOELAKO.

ETA ESKERRIK BEROENAK

ELGETAKO GAZTE ASANBLADARI, PARTE HARTU ETA
LAGUNDU DUTEN GUZTIEI.



ELGETAKO HERRI BATASUNA
ABERTZALE ETA EZKERTIARRA



ABERRI EGUNA 95

Apirilak 16

ELGETAKO EAJ-K Aberri eguna ospatzeko
abertzaleok balkoietan ikurrina ipintzeko
gonbitea egiten du.

ZORIONAK ELGETARROI

Aurten ekitaldi nagusia IRUN-en
izango da. Programa banatuko da.



ELGETA
Buru-Batzarra